



SAN
TIA
GOS
2022

ER
MU
KO

JAIK

AURKIBIDEA

Alkatearen Agurra	3
2022ko Santiaxauak	4
Paella-Lehiaketako Oinarriak	12

Argitaratzen duena: Ermuko Udala

Azala: Cristobal Aguiló Domínguez. Santiaxauko kartel lehiaketaren irabazlea.

Argazkiak: Roberto tejada

Edita: Ayuntamiento de Ermua

Portada: Cristobal Aguiló Domínguez. Ganador concurso de carteles de Santiago

Fotografías: Roberto Tejada



MIC Edizioak

Tel.: 902 271 902

www.editorialmic.com

**ALKATEAREN
AGURRA**

Ermuar adiskideok:

HEMEN DIRA BERRIZ ERE SANTIXAUAK!

Oso une latzak eta zailak igaro ditugu pandemia dela-eta, gizarte moduan proban jarri gaituen pandemia gogorra. Bi urte hauetan ziurgabetasuna, kolapso sanitarioak, maskarak eta zuhurtzia gure eguneroko bizitzaren parte izan dira.

Oso harro nago gure herriak berriz ere erakutsi duen erresilientziaz, altxatzen eta itxaropenez etorkizunerantz aurrera egiten jakin duelako. Egokitu eta zoritxarra gainditzeko gai izan gara, duela 25 urte egin genuen bezala, askatasunaren aldeko indar eta borrokaren eredu bilakatuz.

Ez dut pasatzen utziko COVID-19ak eraman dituen pertsona guztienganako oroimen berezi eta maitekorra adierazteko aukera. Bai haien tzat eta bai haien familientzat gure omenaldia eta gure aitortzarik zintzoena.

Bihotzez opa dizuet jaiotan zuen lagun eta familiekin gozatzea eta ondo pasatzea; pixkaka normaltasuna berreskuratzen joatea, alaitasun, errespetu eta erantzukizunez beteriko jaiak pasatzea, eta oporretatik bueltan merezitako oporretatik denok gure etxeetara onik itzultzea.

GORA SANTIXAUAK!!!

Juan Carlos Abascal

Ermuko alkateak

2022KO SANTIXAUAK

ERMUKO JAIK (UZTAILAREN 14TIK 27RA)

UZTAILAREN 14a, OSTEGUNA



Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOLASen** hasiera harra eta jatorrizko bekatua jokoekin. Txarangen Bartzordeak antolatuta.

Gaueko 10:30ean, **BERTSO JAIALDIA** Martxoaren 8a plazan, Deba Beheko Bertso Eskolak antolatuta. Bertan izango dira Irune Basagoiti, Ekhiñe Zapiain, Aner Euzkitze, Irati Alkantarilla, Inazio Vidal y Haizea Arana. Gai jartzaile: Ainhoa Urien

UZTAILAREN 15a, OSTIRALA

Arratsaldeko 5:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, Zirika Zirkus "Aurkitu gabeko altxorra"

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA eskainiko du..
Antolatzaile: Euskal Birusa

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOLASAK**. Oraingo honetan triatloi eta soka-tira lehiaketak izango dira.

Gaueko 10:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, Versionarios taldearen **KONTZERTUA**.

UZTAILAREN 16a, LARUNBATA

Goizeko 9:00etan, Mallabiko Pedro Deunaren zelaian, **TXAKURREN ERAKUSTALDI-LEHIAKETA**, La Verdad ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta.

Goizeko 9:00etatik aurrera, **SANTIXAUKO IV. PADEL TXAPELKETAREN** hasiera San Pelaiko kantxetan.

Goizeko 10:00etan, Orbe Kardinalaren pilotalekuan, **ARKU-TIRO PROBA**, Beti-Ondo arku-tiro taldeak antolatuta. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du.

Goizeko 11:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **ALDIBEREKO ETA XAKE AZKAR**

PARTIDEN ERAKUSTALDIA, Ermutarrak Xake Taldeak antolatuta.

Gaueko 11:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, Skakeitan taldearen **KONTZERTUA**. Ordu bete lehenago, Slide taldeak joko du.

UZTAILAREN 17a, IGANDEA

Goizeko 9:00etatik aurrera, SANTIXAUKO IV. PADEL TXAPELKETA San Pelaioiko kantxetan.

Goizeko 9:30ean, Anbreko industrialdean nazio mailako **2022ko SANTIXAUAK TXIRRINDULARITZA PROBA** umeentzat (neskak eta mutilak), Ermuko Txirrindulari Elkarteak antolatuta.

Goizeko 10:00etan, San Pelaio plazan, **IRRATIZ KONTROLATURIKO AUTOEN 'ERMUA HIRIA' XXIII. TXAPELKETA**, Eztanda taldeak antolatuta.

Goizeko 10:30ean, Orbe kardinalaren plazan **HERRI ARTEKO XXV. XAKE TXAPELKETA**, Ermuko Xake taldeak antolatuta.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, Ermuko Kultur Etxeek **MUSIKA ETA DANTZA JAIALDIA** eskainiko dute, New Orleanseko Komenka Ethnic Dance & Music Ensemble, eta Boliviako Acurela boliviana taldeekin.

UZTAILAREN 18a, ASTELEHENA

Arratsaldeko 6:30ean, SANTIXAUKO IV. PADEL TXAPELKETA San Pelaioiko kantxetan.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOLASAK** artaburu proba eta pepino jokoarekin, Txarangen Batzordeak antolatuta.



Gaueko 10:30ean, Martxoaren 8ko plazan, Komite Internazionalistek antolatutako Rafa Rueda abeslariaren **KONTZERTUA**.

UZTAILAREN 19a, ASTEARTEA

Arratsaldeko 6:30ean, SANTIXAUKO IV.
PADEL TXAPELKETA San Pelaioiko kantxetan.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOLASAK**: soka-tira finala eta kuboen proba.

Gaueko 10:30ean, Martxoaren 8ko plazan, Euskla Birusak antolatutako Petti musikariaren **KONTZERTUA**

UZTAILAREN 20a, ASTEAZKENA

Arratsaldeko 6:30ean, SANTIXAUKO IV.
PADEL TXAPELKETA San Pelaioiko kantxetan.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, Hortzmuga taldeak "Bidearen amaiera" **KALE IKUSKIZUNA** eskainiko du.

Gaueko 9:00etan, Orbe Kardenalaren plazan **HERRI OGITARTEKADA**. Ogitartekoak eta edariak banatuko dira oso salneurri berezian, Txarangen Batzordeak antolatuta.

Gaueko 10:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **TXARANGEN ABESTI-LEHIAKETA**. Lehiaketatik kanpo, Irulitxa txaranga arituko da giroa alaitzen.

UZTAILAREN 21a, OSTEGUNA (Umeen eguna)

Goizeko 11:00etan, Orbe kardinalaren plazan, **HAURRENTZAKO TXUPINAZO** kolore

hautsarekin, Haurrek Kontseilauk antolatuta. (Igerilekuko betaurrekoak eta erabilitako arropa ekartzea gomendatzen da).

Goizeko 11:15ean, BURUHANDIAK Orbe Kardinalaren plazan

Goizeko 11:30etatik ordu 1:30era eta arratsaldeko 4:00etatik 7etara, Orbe Kardinalaren plazan, **HAURRENTZAKO PARKEA eta TAILERRAK**, Txarangen Batzordeak antolatuta.

Arratsaldeko 4:00etan, BURUHANDIAK Orbe Kardinalaren plazan.

Arratsaldeko 5:30ean, HAURRENTZAKO TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan, Txaranga Batzordeak antolatuta.

Arratsaldeko 6:30ean, SANTIXAUKO IV.
PADEL TXAPELKETA San Pelaioiko kantxetan..

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan **HAURRENTZAKO MUSIKA- IKUSKIZUNA**, Kantu Kolore taldearen eskutik.

Arratsaldeko 8:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **KOLOREDUN APAR JAIA**.

Gaueko 10:00etatik goizaldeko ordu 1etara, Martxoaren 8a plazan **FESTAN BLAI** gazteentzako zuzeneko musika Txurru DJarekin.

UZTAILAREN 22a, OSTIRALA

Arratsaldeko 6:00etan, Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, gazte mailan Iker Izagirre



Mikel Egurrolaren aurkako **4,TERDIKO PILOTA PARTIDA**. Partida honen ondoren **4,TERDIKO EZUSTEKO PARTIDA** egongo da. Antolatzaile: Ermuko Pilota elkarte. (Euria ba dago, ekitaldi hau Aritzmendi pilotalekuan izango da)

Arratsaldeko 6:30etatik aurrera SANTIXAUETAKO IV. PADEL TXAPELKETAREN partidak San Pelaikoko kantxetan, El Sartenazo taldeak antolatuta.

Gaueko 10:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **PLAY-BACK LEHIAKETA**, Txarangen Batzordeak antolatuta.

UZTAILAREN 23a, LARUNBATA

Goizeko 9:30etatik aurrera, SANTIXAUKO IV. PADEL TXAPELKETAREN partidak San Pelaiko kantxetan.

Goizeko 10:30ean, Orbe Kardinalaren plazatik, **URKO 69etan ezetz! XI. IGOERA KONTROLATU**Ari emango dio hasiera Artarrai mendizale taldeak.

Arratsaldeko 4:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **MUSA TXAPELKETA**, Afaltzaindiak antolatuta.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **DANTZA EMANALDIA**, Ermuko Txindurri eta Adejeko (Tenerife) Udalako dantza taldeekin. Antolatzaile: Txindurri taldea

Gaueko 11:30ean, San Pelaio plazan, La Oreja de Van Gogh taldearen **KONTZERTUA**.

UZTAILAREN 24a, IGANDEA

Goizeko 10:15ean, **SANTIXAUKO IV. PADEL TXAPELKETAREN** finalak San Pelaioko kantzetan.

Goizeko 12:00etan, San Pelaioko Bolatokian, **BOLO-PALMA TXAPELKETA** Campoo de Yuso (Kantabria) emakume-taldearekin. Antolatzailea: Peña Bolística Montañesa.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXUPINAZOA** eta ohiko **KALEJIRA** Irulitxa eta New Tocado musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaituta.

Gaueko 10:00etatik goizeko 3:00etara, Martxoaren 8a plazan **ROCK JAIALDIA** Stormseeds (Ourense), Balmog (Pontevedra), Totengott (Asturias) eta Nakkiga (Araba) taldeekin.

Antolatzaile: Beti Txarto

Gaueko 11:00etatik goizeko 4:00etara, **DANTZALDIA** Orbe Kardinalaren plazan Vulkano Show orkestrarekin.



UZTAILAREN 25a, ASTELEHENA

Goizeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela-Leon Kultur Etxeak eskainita.

Goizeko 7:30ean, Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, Txarangen Batzordeak antolatutako **BARRUS partidak**. Laguntzailea: Goxo-Goxo dastategia.

Goizeko 8:00etan, **SOKAMUTURRA** Ongaraiko Eskolako patioan.

Eguerdiko 12:00etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 5:00etatik 8:00etara, **HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.

Eguerdiko 12:30ean, Santiago Apostoluaren elizan **MEZA NAGUSIA** patroiairen omenez.

Eguerdiko 12:30ean, **HERRI-KIROL** ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan. Probak eta partehartzaileak:

HARRIJASOTZAILAK: Jon Gisasola eta Karmele Gisasola

AIZKOLARIAK: Hodei Ezpeleta, Bihurri, Zelai IV eta Álex Txikon,

IPARRALDEKO JOKOAK

Eguerdiko 12:30ean, **KALEJIRA** The Joselontxo,s txarangaren eskutik.

Arratsaldeko 5:00etan, Aritzemendi pilotalekuan, **PROFESIOALEN ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK**: Caixabank Master Txapelketa, Ermuko Pilota Taldeak antolatuta.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA** Ondalan konpartsaren eskutik.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **KALEJIRA** The Joselontxo,s txarangarekin.

Arratsaldeko 8:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **LARRAINDANTZA** nahi duen guztiak parte hartzeko.

Arratsaldeko 8:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA**, Afaltazaindia taldeak antolatuta.

Gaueko 10:00etatik goizeko 3:00etara, Martxoaren 8a plazan **ROCK JAIALDIA** Errmuko The Red Army eta We Are Apes, Hello!, Gipuzkoako Hiri Galduak eta Madrileko Yawners taldeekin. Honen ostean, AndoniS Djak **MUSIKA ELEKTRONIKOA**ren saioa aurkeztuko du. Antolatzaile: Beti Txarto

Gaueko 10:30ean, San Pelaioiko plazan, "Flotados" **KALE IKUSKIZUNA**, David Morenoren konpainiaren eskutik.

Gaueko 11:00etatik goizeko 4:00etara, Orbe Kardinalaren plazan, Maremagnum orkestrak **DANTZALDIA** girotuko du.

UZTAILAREN 26a, ASTEARTEA

Goizeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela-Leon Kultur Etxeak eskainita.

Goizeko 7:30ean, Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan **BARRUS partidak**.

Goizeko 8:00etan, Ongarai Eskolako patioan, **SOKAMUTURRA**.

Eguerdiko 12:00etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 5:00etatik 8:00etara, San Martin plazan **HAURRENTZAKO PARKEA**.

Eguerdiko 12etan, Orbe Kardinalaren plazan, **NAGUSIEI OMENALDIA** eta Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei **SARIAK BANATZEA**.

Eguerdiko 12:00etan, **KALEJIRA** Mexico lindo Mariachi bandaren eskutik. Ostean, Orbe kardenalaren plazan **KONTZERTUA** eskainiko dute.

Arratsaldeko ordu 2:00etan, Merkatu Plazan, Nagusien Etxeak **HERRI BAZKARIA** eskainiko die aitona-amona bazkideei.

Arratsaldeko 6:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **ESKUPILOTA** partidak, Pilota Taldeak antolatuta: lehengo afizionatu kategoriako nesken binakako partida Arrizabalaga-Gaminda bikotea Aldai- Mendizabalaren aurka, eta ondoren afizionatu kategoriako mutilen binakako partida Hormaetxe-Pujana bikotea Gorka Agirremalloa-Ibarlozaren aurka.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, Potxin eta Patxinek "Baserrian" **PAILAZO IKUSKIZUNA** eskainiko dute.

Arratsaldeko 7:00etan, **KALEJIRA** Ustekabe musika-bandak alaituta.

Arratsaldeko 7:00etan **KALEJIRA** Ermuko txarangen eskutik.

Arratsaldeko 8:00etan Orbe Kardinalaren plazan **LARRAINDANTZA**.

Gaueko 10:30ean San Pelaio plazan Markeliñe taldeak "Carbón Club" **KALE IKUSKIZUNA** eskainiko du.

Gaueko 11:00etatik goizeko 4:00etara Orbe Kardinalaren plazan, Pasarela Orkestrak **DANTZALDIA** alaituko du.

UZTAILAREN 27a, ASTEAZKENA

Goizeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela- Leoneko Kultur Etxeak eskainita.

Goizeko 7:30ean, Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, **BARRUS partidak**.

Goizeko 8:00etan, Ongarai Eskolako patioan, **SOKAMUTURRA**.



Goizeko 11:00etatik 12:30era, arroz-banaketa Orbe Kardenalaren plazan eta, ondoren, **PAELLA LEHIAKETA** herrikoari ekingo zaio haur eta helduen kategorietan. Antolatzailea: Lobiano Gastronomi elkarte, Laguntzailea: Ermuko dendari eta ostalarien elkarte.

Goizeko 11:00etan, Martxoaren 8a plazan, **SARDINA BANAKETA** nahi duen guztientzat, Nagusien Etxeak antolatuta.

Eguerdiko 12:00etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 5:00etatik 8etara, San Martin plazan, **HAURRENTZAKO PARKEA**.

Eguerdiko 12:30ean, **KALEJIRA** Irulitxa txarangaren eskutik.

Eguerdiko ordu 1etan KALEJIRA, Macjeara,s Jazz bandaren eskutik.

Eguerdiko 1etan, Orbe kardenalaren plazan, Galiziako Kultur Zentruak antolatutako Allarizko Udal Bandaren **KONTZERTUA**.

Arratsaldeko ordu 2etan, paella lehiaketara aurkeztutako platerak **DASTATUKO DIRA** eta ondoren ohiko **HERRI BAZKARIA**.

Arratsaldeko 6:00etan Orbe Kardinalaren plazan, **ERROMERIA**, Lotxo taldeak alaituta.

Arratsaldeko 7:00etan, **KALEJIRA** Irulitxa txarangaren eskutik.

Arratsaldeko 7:00etan, **KALEJIRA** Macjeara,s Jazz bandaren eskutik.

Arratsaldeko 7etan, Orbe Kardinalaren plazan paella lehiaketako epaimahaikideek

IRABAZLEAK ezagutaraziko dituzte eta **SARI-BANAKETA** egingo da.

Arratsaldeko 7:15ean, Orbe Kardinalaren plazan **AURRESKUA ETA LARRAINDANTZA** nahi duten guztientzat.

Arratsaldeko 8:00etan, **ERROMERIA BERRIZ ERE** Lotxo taldeak alaituta.

Arratsaldeko 8:30ean, **KALEJIRA** Artistas del Gremio bandarekin.

Gaueko 11:30ean, Irulitxa musika-bandaren **ONGIETORRIA** Orbe Kardinalaren plazan.

Gaueko 12etan, Ongaraiko parkean **SUZIRIAK** Caballer FX pirotekniaren eskutik. Ondoren, **KALEJIRA** Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan **AGUR JAUNAK** abestea, aurtengo jaiei agurra emateko.

Gaueko 12:30ean, Orbe Kardenalaren plazan, **JAIEI AMAIERA** Los Brincos taldearen kontzertuarekin.



2022ko Santixauak

PAELLA-LEHIAKETAREN OINARRIAK

- 1- Izena eman duen edozein koadrila, txaranga eta pertsona taldek parte hartu ahal izango du. Izena uztailaren 27an Orbe Kardinalaren plazako kioskoan eman beharko da, goizeko 11:00etatik 12:30etara.
- 2- Paella bide publikoan egin eta jan beharko da uztailaren 27an bertan. Izena ematean izen bat eta bi abizena eman beharko dira, bai eta telefono zenbakia eta paella zein lekutan egingo den adierazi.
- 3- Parte hartzeagatik bakarrik, Ermuko Dendari eta Ostalarien Elkarateak amantala eta 10 mahaikideko arroz pakete bat emango dizkio koadrila edo talde bakoitzari.
- 4- Antolatzaileek ez dute inolako sukaldetresnarik emango (sua, lapikoak...)
- 5- Uztailaren 27an Orbe Kardinalaren plazako kioskoan aurkeztu beharko dira paellak arratsaldeko 14:00etatik 15:00etara, epaimahaikoek balora ditzaten. Hauek dastatu ondoren lehiakideei itzuliko diete. Paella aurkeztzen den momentuan, txaranga bakoitzak bi botila-ardo hartuko ditu parte hartzeagatik.
- 6- Epaimahaikoak paella egiten ari den lekura joan daitezke, nola egiten ari den ikustera.
- 7- Bi sari izango dira:
 1. Saria: 500 € eta oparia.
 2. Saria: 200 € eta oparia.
- 8- Ondorengo ezaugarriak kontutan hartuko dira: aurkezpena, sukaldaritza puntua, testura eta zaporea. Azken honek balio handiena izango duena izanez.
- 9- Epaimahaikoen erabakia apelaezina izango da, eta Orbe Kardinalaren plazan egunean bertan, arratsaldeko 19:00etan adieraziko da.
- 9- Lehiaketan parte hartzeak berori arautzen duten oinarriak onartzea suposatzen du. Oinarriok interpretatzeko orduan zalantzaren bat sortzen bada, Batzorde Antolatzaileak erabakiko du.

**BUSTI
EUSKARAZ
SANTIXAUA**



Euskara saila



**NO
es
NO**

**EZ
beti da
EZ**

Jaietan, eraso sexistarik EZ

Emakumeen kontrako indarkeriarekin amaitzea
denon ardura da
Erasotuta sentitzen bazara, laguntza eskatu
Erasoren bat ikusten baduzu, zure laguntza eskeini

De fiesta, sin agresiones sexistas

*Es responsabilidad de todos y todas acabar con la
violencia contra las mujeres
Si te sientes agredida, pide ayuda
Si presencias alguna agresión, ofrece tu ayuda*

24 ordu | Atención 24 horas

Ermuko udaletxea | Ayuntamiento de Ermua
Udaltzaingoa | Policía Local

943176 300

casadelamujer@udalermua.net

